

R. GOSCINNY

Asterix

A. UDERZO

ASTERIXEN HAMABI PROBAK

Testuaren oinarrian dagoen gidoia: René GOSCINNY

Marrazkiak: Albert UDERZO



www.asterix.com

 Asterix y Obelix  @lardasterix

Jatorrizko izenburua: *Les XII travaux d'Astérix*
Itzulpena: Usua Lasa (BAKUN itzulpenak S. L.)
ASTERIX ® - OBELIX ® - IDEFIX ® - IDEAFIX ©
© 1976 GOSCINNY-UDERZO
© 1999 HACHETTE LIVRE

© 2021 HACHETTE LIVRE, edizio honetarako eta euskarazko itzulpenerako

Grupo Editorial Bruño, S. L.-k 2021n argitaratua
Juan Ignacio Luca de Tena, 15. 28027 Madrid

Lege Gordailua: M-1796-2021
ISBN: 978-84-696-6366-0

Printed in Spain-Espainian inprimatua



GOSCINNY ETA UDERZOK AURKEZTUTA ASTERIXEN ABENTURA BAT

ASTERIXEN HAMABI PROBAK

Liburu hau LES STUDIOS IDÉFIX
estudioaren animazioko filmean oinarrituta dago.




Testuaren oinarrian dagoen gidoia: **René GOSCINNY**
Marrazkiak: **Albert UDERZO**

Kolorea: Thierry Mébarki

G

ure istorioa galiar herrixka tipiko baten kanpoaldean hasten da. Baso handi eta eder batek inguratzen du herrixka, eta txorien txorrotxioek baino ez dute asaldatzen isiltasuna. Kristo aurreko 50. urtean gaude. Erromatarrek Galia osoa armaz harturik daukate... Osoa? Ez! Nonbait Armorikan, herrixka honek eusten dio...





Hementxe dira erromatarrei horrela eusten tematuta dagoen herrixkako biztanleak! Ezkutuaren gainean dagoen pertsonaiak Abrarakurzix du izena. Gerlari beldurgarria da, eta herrixkako buruzagi ukaezina. Bere emazteak Bonemine (edo Bonemintxo) du izena, eta nahiz eta Abrarakurzix beldurgarria izan, haren ezkutua eta hura eramaten dutenak erosketak egitera eramateko ohitura gogaikarria du. Eskuin muturrean, Asuranzeturix koblakaria duzue. Baliteke bere garairako aurreratuegia izatea; izan ere, batzuetan, garaikideek kritikatu egiten dute haren musika-talentua.



Batez ere, ezkerrean duen lagunak, errementaria bera. Hark, Zetautomatixek, ados ez dagoenean, koblakariari buruan sekulako ukabilkadak emateko ohitura txarra du. Taldearen aurrean dagoen txakur txikia Idefix da, herrixkako maskota eta Obelix menhir-saltzailearen lagun mina. Egia esan, bi biztanle zentzudun baino ez ditu herrixkak: bizar zuri luzea duen Panoramix druida eta Asterix. Funtsean, bi gizon horiei eta Panoramixek prestatutako edabe magikoari esker eutsi ahal izan die orain arte galiar herrixkak erromatarren erasoiei.

